| SOPELAKO UDALAK 2019KO UZTAILAREN 24AN, ARRATSALDEKO 19:30ETAN, EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA | ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE SOPELA, EL DIA 24 DE JULIO DE 2019, A LAS 19:30 HORAS |
|---|---|

**BERTARATUAK / ASISTENTES**

**LEHENDAKARIA / PRESIDENTE**
**ALKATEA / EL ALCALDE**

Josu Mirena Landaluze Zarandona

**ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE**

Amaia Guenechea Villabeitia (EAJ-PNV)
María Teresa Fernández García (PSE-EE (PSOE))
Ignacio Moreno López (EAJ-PNV)
Mª Angeles Ibarra Eguiguren (EAJ-PNV)
Jon Andoni Gerediaga Bilbao (DB-TU)

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES**

Naiara Ibarzabal Arrasate (EAJ-PNV)
Joseba Arruza Arrieta (EAJ-PNV)
Marilyn Panayotou (EAJ-PNV)
Unai Del Burgo García (EH BILDU)
Guruzne Carrasson Torrontegi (EH BILDU)
Ander Moreno del Campo (EH BILDU)
Aitziber Onaindia Martínez (EH BILDU)
Miguel A. Tapia Trigueros (EH BILDU)
Arantza Bilbao Olarra (EH BILDU)
Patricia de los Angeles Alfonso Sousa (PODEMOS,EZKER ANITZA-IU, EQUO BERDEAK)
Eder García López (PODEMOS,EZKER ANITZA-IU, EQUO BERDEAK)

**IDAZKARIA / LA SECRETARIA**

Laura Arana Aguirre

Sopelan, 2019ko uztailaren 24an, arratsaldeko 19:30 direnean, Udaletxean bildu dira goian adierazitako zinegotziak, Josu Mirena Landaluze Zarandona alkate-udalburu jaunaren burutzapean, ez-ohiko Osoko Bilkura egiteko, deialdian ezarritako gai-zerrendaren arabera, eta bertan izan da bilkuraren fede eman duen Laura Arana Aguirre andrea, idazkaria eta Irantzu Ocerin Larizgoitia and, udal honetako Artekaria.

En Sopela, a 24 de julio de 2019, siendo las 19:30 horas, se constituye el Pleno de este Ayuntamiento bajo la Presidencia del Sr. Alcalde-Presidente, D. Josu Mirena Landaluze Zarandona, con asistencia de los/as Sres/as Concejales/as arriba señalados, al objeto de celebrar sesión ordinaria, con arreglo al Orden del Día designado en la convocatoria, con la asistencia de la Secretaria Dª Laura Arana Aguirre, que dará fe del acto y de la Sra. Interventora Dª Irantzu Otzerin Larizgoitia.

**AZTERGAI ZERRENDA**

**1.- 2019KO EKAINAREN 28KO AURREKO AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA:** Bertaratutakoek, aho batez, aurreko akta onartzea erabaki dute.

**ATAL ERABAKITZAILEA**

**2.- ZIPIRIÑE IKASTETXERAKO UDAL-ORDEZKARIA IZENDATZEA. (2210/2019 esp.):-** Oinarria: Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legeko 33.1 artikuluaren arabera, "ordezkaritza-organo gorena da eskola-elkarteko kideen partaidetza-organoa euskal eskola publikoko ikastetxeen gobernuan, eta beroni dagokio eskola-bizitzarako funtsezkoak diren erabakiak hartzea, eta ikastetxearen autonomi esparruan, ikastetxearen jarduearen azken erantzulea da."

Oinarria: Lege testu bereko 32.2 artikulua kontuan hartuta: "Ikastetxeko ordezkaritza-organo gorena, gutxienez, honako kide hauek osatuko dute: (….) Zinegotzi batek edoikastetxea dagoen udal mugarteko udalaren ordezkari batek.

Oinarria: Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko ez unibertsitarioetan ordezkaritza-organo gorena hautatzeko eta partzialki berritzeko prozesua arautzen duen azaroaren 12ko 258/1996 Dekretuko 3.3 artikuluaren arabera: "Antolamenduko eta jarduerako araudia onartu gabe duten ikastetxeen kasuan, Hezkuntza sailburuordearen erabakiak zehaztuko du Ordezkaritza Organo Gorenaren osaketa".

Ikusita: Hezkuntza sailburuordearen 2014ko irailaren 1eko ebazpenak antolaketa eta funtzionamendu araudia onartuta ez duten Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko ez unibertsitarioetako ordezkaritza organo gorenen osaera zehazten du, eta, horren arabera, ebazpenean aipatzen diren ikastetxeak dauden udalerrietan ordezkari bat egon behar da.

Oinarria: Izendapena egiteko eskumena udalbatzako osoko bilkurari dagokio, udal araudi

**ORDEN DEL DIA**

**1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR DE FECHA 28 DE JUNIO DE 2019** Los asistentes, por unanimidad, acuerdan: Su aprobación.

**PARTE RESOLUTIVA**

**2.- NOMBRAMIENTO REPRESENTANTE DEL AYUNTAMIENTO EN EL COLEGIO PUBLICO ZIPIRIÑE (Exp. 2210/2019):-** Considerando que el artículo 31.1 de la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca establece que "El órgano máximo de representación es el órgano de participación de los miembros de la comunidad escolar en el gobierno de los centros de la escuela pública vasca; tiene atribuidas las decisiones fundamentales que afectan a la vida escolar, y es el responsable último, en el ámbito de autonomía del centro, del funcionamiento de éste".

Considerando que el artículo 32. 2 del mismo texto legal establece que "El órgano máximo de representación de los centros estará compuesto como mínimo por los siguientes miembros: (….) Un concejal o representante del Ayuntamiento en cuyo término municipal se halle radicado el centro".

Considerando que el artículo 3.3 del Decreto 258/1996, de 12 de noviembre, por el que se regula el procedimiento de elección y renovación parcial del Órgano Máximo de Representación de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco establece que "La Composición del Órgano Máximo de Representación de los centros que no tengan aprobado su Reglamento de Organización y Funcionamiento será fijada por Resolución del Viceconsejero de Educación".

Vista la Resolución de 1 de septiembre de 2014, de la Viceconsejera de Educación, por la que se determina la composición del Órgano Máximo de Representación de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco que no tienen aprobado su Reglamento de Organización y Funcionamiento, según la cual los Ayuntamientos en cuyos términos radiquen los centros a los que se refiere la resolución les corresponde un representante.

Considerando que la competencia para efectuar el nombramiento corresponde al Pleno de la

organikoko 9.3 artikuluan eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errefe Dekretuan xedatutakoaren arabera,

Corporación en virtud del artículo 9.3 del Reglamento Orgánico Municipal y del artículo 38 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre,

Ondoren Eder Garcia jaunak hartu du hitza, Sopelako Elkarrekin Sopela-Podemos udal talde politikokoak, hau esanez: Zipiriñerekin zerikusia duen gaian, aste honetan jakinarazi den 2019-2023 Azpiegitura Planean, Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bat bakarrik aipatzen da, eta ez da agertzen Lehen Hezkuntzako edo Haur Hezkuntzako ikastetxe baterako aurrekontu-zuzkidurarik. Zergatik ez da agertzen aurrekontu-zuzkidurarik? Zer neurri hartuko ditu gobernu-taldeak zentzu horretan?

A continuación toma la palabra D. Eder García, del grupo político municipal Elkarrekin Sopela-Podemos, para señalar: En el tema relacionado con Zipiriñe, en el Plan de Infraestructuras 2019-2023 hecho público esta semana, sólo se comenta un centro de secundaria y no aparece dotación presupuestaria para un centro de primaria o infantil. ¿Por qué no aparece ninguna dotación presupuestaria? ¿Qué medidas va a tomar el equipo de gobierno en este sentido?..

Hauxe erantzun du Alkate jaunak: Zipiriñen izan ditugun bi bileretan horri buruz aritu ginen. Badakizue zer urrats eman diren Hezkuntza Sailarekin Iberre eta Zipiriñe kasuetarako. Haiekin lan egiten ari gara, eta Zipiriñeren beharra ikusten dugu. Une honetan, Hezkuntza Sailaren lehentasuna Iberre Institutua da.

Contesta el Sr. Alcalde indicando que en las dos reuniones que hemos tenido en Zipiriñe este tema salió a colación. Conocéis los pasos que se han dado con el Departamento de Educación para el tema de Iberre y Zipiriñe. Se está trabajando con ellos y se ve la necesidad de Zipiriñe. En estos momentos la prioridad del Departamento de Educación es el Instituto Iberre

Sopelako EHBildu Udal Talde Politikoaren Bozeramailea den Unai del Burgok hartzen du hitza, zera esanez: Guk aurreko plenoan azaldutako mezu berbera botako dugu. Hau da, zein garrantzitsua den udaleko ordezkariak egotea Eskola kontseiluan, batez ere, bi alorretan: Bata, Zipiriñek dituen espazio arazoak, eta honetan azpimarratu nahi dugu plan horretan ez dela agertzen Zipiriñe eskolarentzako inolako inbertsiorik. Agertzen da Instituto barria, baina ez da agertzen institutorako partidarik. Guk, EHBilduk, galdera batzuk aurkeztu ditugu Eusko Jaurlaritzan, eta beste puntu oso garrantzitsua da mantenua edo mantenu-lanak. Zipiriñeko zuzendaritzak bidali digu zerrenda bat eta oso garrantzitsua da zerrenda horri jarraipena ematea.

Toma la palabra Unai del Burgo, portavoz del grupo político municipal Sopelako EHBildu, para señalar: Nosotros lanzaremos el mismo mensaje que en el anterior pleno. Es decir, la importancia que tiene el tener representantes municipales en el Consejo Escolar, sobre todo en dos ámbitos: Por una parte, los problemas de espacio que tiene Zipiriñe, y aquí queremos subrayar que en ese plan no aparece ninguna inversión para la escuela Zipiriñe. Aparece el nuevo instituto, pero no aparece ninguna partida para el instituto. Nosotros, EHBildu, hemos presentado una seria de preguntas en el Gobierno Vasco, y otro punto muy diferente son el mantenimiento y los trabajos de mantenimiento. La dirección de Zipiriñe nos ha mandado una lista, y es muy importante realizar un seguimiento a esa lista.

Amaia Guenetxea andreak hartu du hitza, Eusko Abertzaileak-Nacionalistas Vascos udal taldekoak, hau esanez: Aurkeztutako azken zerrendatik, bi gai izan ezik, beste guztiak konponduta daude.

Toma la palabra Dª Amaia Guenetxea, del grupo político municipal Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos para señalar: De la última lista presentada, menos dos asuntos, está todo arreglado.

Alkate jaunak hartu du hitza, hau esanez: aurreko bilerei eta antolatuta daudenei buruzko informazioa berehala eman dizuegu, eta noski, hori egiten jarraituko dugu, baina zoritxarrez, ezin da azkarrago joan. Badakizue zer egiten ari den, eta aurrera egiten dugun heinean horri guztiari buruzko informazioa emango dizuegu.

Interviene el Sr. Alcalde indicando que de las reuniones previas y las que están programadas se os ha dado información al minuto, y por supuesto, se os seguirá informando, pero lamentablemente, no se puede correr más. Conocéis lo que se está haciendo y según vayamos avanzando, se os informará de todo.

Sopelako EHBildu udal talde politikoko Unai Del Burgo, Guruzne Carrasson, Ander Moreno, Aitziber Onaindia, Mikel Tapia eta Arantza Bilbao jaun/andreok, eta Elkarrekin Sopela-Podemos udal talde politikoko Patricia Alfonso eta Eder García jaun/andreok ere abstenitu dira.

Con la abstención de D. Unai Del Burgo, Dª Guruzne Carrasson, D. Ander Moreno, Dª Aitziber Onaindia, D. Mikel Tapia y Dª Arantza Bilbao del grupo político municipal Sopelako EHBildu y de Dª Patricia Alfonso y de D. Eder García, del grupo político municipal Elkarrekin Sopela-Podemos.

Osoko Bilkurak, gehiengoz, erabakitzen du:

El Pleno, por mayoría, acuerda:

Lehenengoa:- Udalak Sopelako Zipiriñe Ikastetxean duen ordezkaritza organo goreneko ordezkari gisa izendatzea Amaia Guenechea Villabeitia lehen alkateordea eta bere ordezko gisa Josu Mirena Landaluze Zarandona.

Primero.- Nombrar como representante del Ayuntamiento en el Órgano Máximo de Representación de Colegio Público Zipiriñe a la primera Teniente de Alcalde Dña. Amaia Guenechea Villabeitia y como suplente a D. Josu Mirena Landaluze Zarandona.

Bigarrena:- Ebazpen honen berri ematea Sopelako Zipiriñe Ikastetxeari, ondore egokiak izan ditzan

Segundo.- Dar traslado de la presente resolución al Colegio Público Zipiriñe Iberre de Sopela a los efectos oportunos.

**3.- LEHENAGOKO BETEBEHARRAK AITORTZEA. ZENBAIT FAKTURA. 152/2019 esp.** Mª Angeles Ibarra andreak, Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos udal taldekoak, gaia azaldu du. Aintzatespen bat dagoela dio, Euskaltegiarekin zerikusia duena zehazki, eta Amaia Guenetxea andreak azalduko duela.

**3.- RECONOCIMIENTO DE OBLIGACIONES DE FACTURAS VARIAS. EXP. 152/2019:-** Por parte de Dª Mª Angeles Ibarra, del grupo político municipal Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos, se explica el tema. Comenta que hay un reconocimiento, en concreto, el relacionado con el Euskaltegi, que pasará a explicarlo Dª Amaia Guenetxea.

Ondoren, Amaia Guenetxea andreak hartu du hitza, hau esanez: Aurkitu ditugun Euskaltegiko fakturak aztertuz, 3 aurkitu ditut. Bat, Selzur Bizkaia hornitzailearena, maiatzeko kopiena; bigarrena, Jira Musikaz enpresarena, Agate Deunaren bezperako trikiti batena, eta azkena, Petritegi Sagardotegiarena. Lehenengo birekin ez nago ados, baina ez dira nire legealdikoak eta ezin dut ezer egin, oniritzia eman duen pertsona Euskaltegikoa dela ikusi dudalako, Udaletik pasatu gabe. Hirugarren faktura, Petritegi Sagardotegiarena, uztailaren 1ekoa, beraz, ni hemen banengoen dagoeneko eta ukatzen dudala esan behar dut. Ez zait ondo iruditzen, ez didate ezer esan, eta ez da inolako baimenik eskatu. Euskaltegiari galdetu diot, eta "Agate Deunaren eskertza" dela esan didate. Pertsona horri, bere fakturak onartzeko baimena kendu diogu. Hori da esan behar dudana.

Acto seguido toma la palabra Dª Amaia Guenetxea indicando lo siguiente: Revisando las facturas que se ha encontrado del Euskaltegi, me encuentro con 3 facturas. Una del proveedor Selzur Bizkaia relativa a Copias del mes de mayo, la segunda de Jira Musikaz relativa a una Trikitixa de la víspera de Snata Ageeda y la última, de Petritegi Sagardotegia. En las dos primeras no estoy de acuerdo aunque no son de mi legislatura y no puedo hacer nada, porque me he encontrado que la persona que da el visto bueno es una persona del Euskaltegi sin pasar por el Ayuntamiento. La tercera factura, la correspondiente a la Sidrería Petritegi es del 1 de julio, por lo cual, yo ya estaba aquí y tengo que decir que la rechazo. No me parece bien, no se me ha comunicado nada ni se ha pedido permiso alguno. Preguntado al Euskaltegi me comentan que es “agradecimiento a Agate Deuna” . A esa persona se le ha quitado el permiso de aceptar sus propias facturas. Esto es lo que tengo que decir.

Ondoren Jon Andoni Gerediaga jaunak hartu du hitza, Sopelako Denok Batera udal talde politikokoak, eta hau adierazi du: Puntu

Después toma la palabra D. Jon Andoni Gerediaga, del grupo político municipal Denok Batera Sopela para señalar: Comentar que, tanto

honetarako nahiz betebeharrak onartzeko hurrengoetarako, aurreko legealdiko osoko bilkuretan gertatu den moduan, prozedura horrek ezohikoa izan beharko luke, baina maiz erabili da, agian gauzak garaiz eta behar den moduan ez direlako egin. Pixkanaka, legealdi honetan, egoera bideratuko den itxaropena dugu.

para este punto como para los siguientes de Reconocimiento de Obligaciones, que como ha venido sucediendo en plenos de la pasada legislatura este procedimiento que debiera ser extraordinario se ha venido utilizando frecuentemente, quizá por no haber hecho las cosas en tiempo y forma. Tenemos la esperanza de que poco a poco se vaya reconduciendo la situación en esta legislatura.

Segidan Maria Teresa Fernandez andreak hartu du hitza, Sopelako Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak, eta hau esan du: Bi arloko arduradun gisa, geuk ez dugu inoiz ekarri inolako gairik betebeharrak onartzeko, baina horrek ez du esan nahi inoiz ez dugula ekarriko. Baina esan nahi dut egoera horiek gerta ez daitezen lan egiten dugula. Uste dut denok lan egiten ari garela egoerak horiek gerta ez daitezen, gobernu taldean.

Acto seguido toma la palabra Dª Mª Teresa Fernández, del grupo político municipal Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, para indicar: Como responsable de dos áreas, nosotros no hemos traído nunca a reconocimiento de obligaciones ningún tema, lo que no quita que en alguna ocasión tengamos algo. Lo que sí quiero decir es que trabajamos para que estas situaciones no se produzcan. Creo que todos en el Ayuntamiento, el equipo de gobierno está trabajando para que estas situaciones no se den más.

Ondoren Eder Garcia jaunak hartu du hitza, Sopelako Elkarrekin Sopela-Podemos udal talde politikokoak, hau esanez: Aurreko legealdiarenak diren beste bi faktura horiez gain, horiekin ezer gutxi egin daitekeela, sagardotegiaren faktura ukatzen badugu, zer izapide egin behar dugu?

Posteriormente toma la palabra D. Eder García, del grupo político municipal Elkarrekin Sopela-Podemos para indicar: A parte de esas otras dos facturas que son de la legislatura anterior y poco se puede hacer, pero si se rechaza la factura de la Sidrería ¿qué trámite debiéramos seguir?

Hauxe erantzun du Alkate jaunak: gai-zerrendan jasotzen den moduan, faktura hori ezin daiteke atera zerrendatik. Dena batera bozkatu behar dugu. Guk proposatzen duguna zera da: Gai-zerrendako puntutik kentzea eta irailean berriro eramatea, hau da, iraileko osoko bilkurara zerrenda osoa joango litzateke, Petritegi sagardotegiaren faktura izan ezik. Hori da gure proposamena, baina bozkatu beharko da.

Contesta el Sr. Alcalde indicando que, tal y como está en el orden del día, no se puede sacar esa factura de la relación. Hay que votar todo en bloque. Nuestro planteamiento en este punto es el siguiente: Retirar el punto del Orden del Día y volverlo a llevar en Septiembre, es decir, al Pleno de Septiembre iría la relación entera, excepto la factura de la Sidrería Petritegi. Esta es nuestra propuesta que habrá que someterla a votación.

Sopelako EHBildu Udal Talde Politikoaren Bozeramailea den Unai del Burgok hartzen du hitza, zera esanez: Lehenengo eta behin, balorazio orokor bat egingo dot. Joan den legegintzaldian esan genuena, faktura horiek onartzeko modua irregularra da. Kritikatu izan dogu eta kritikatzen duguna da egon dan planifikazio falta, seriotasun falta eta eskatu izan dugu erantzunkizun politikoa honen inguruan. Orain arte abstenitu egin gara eta joan den Ogasun komisioan aipatu genuen Udal Gobernuari ematen genizkiola 100 egun protokolo eta prozedura zehatzak mahai gainean jartzeko eta aplikatzeko. Esan beharra dago Udalaren aldetik sekulako esfortzuak egiten ari dirala honen inguruan hobekuntzak jartzeko.

Toma la palabra Unai del Burgo, portavoz del grupo político municipal Sopelako EHBildu, para señalar: Primeramente haré una valoración general. Lo que dijimos en la pasada legislatura: la forma de aceptar esas facturas es irregular. Lo hemos criticado, y lo que criticamos es la falta de planificación, de seriedad, y hemos pedido responsabilidad política en ese aspecto. Hasta ahora nos hemos abstenido, y en la pasada comisión de Hacienda mencionamos que le dábamos 100 días al Gobierno Municipal para poner encima de la mesa y aplicar protocolos y procesos concretos. Tenemos que decir que desde el Ayuntamiento están haciendo un gran esfuerzo para aplicar dichas mejoras. Por una parte, a finales de mayo se puso en marcha un

Alde batetik, martxan jarri zan Maiatzaren bukaeran barne-kontrolerako sistema bat eta hori dela bidea uste dugu. Barne-kontrol hori martxan jarri eta aplikatzea. Beste aldetik, RPT berrian dauden bi lanpostu horiek, hau da, Diruzaina eta Administrazio Teknikari berezi hori oso garrantzitsuak izan daitezkela benetan kalitatezko prozedurak martxan jartzeko eta batez ere, interbentoreari babesa emateko. Euskaltegiaren inguruan esan beharra dago bat egiten dugula esandakoarekin. Guk beste bi faktura horiek ondo ikusi genituen baina ezin dugu onartu justifikazio hori, hau da, zelan diru publikoarekin zelan finantziatu daiteke 9 menu Petritegi Sagardotegian. Gure helburua zan faktura horreri ezetza ematea. Alkateak egindako proposamenaren gainean, ez dago inolako eragozpenik horrela egiteko baina bai kritika zorrotza egin behar dogu Euskaltegiaren kudeaketari. Ez dute egin kudeaketa ona. Ez maila pertsonalean eta ezta, ogasun mailab.

sistema con control interno, y pensamos que ese es el camino. Poner en marcha y aplicar ese control interno. Por otra parte, los dos puestos de trabajo que están en la nueva RPT, es decir, el de técnico especial de administración y el de tesorero, pueden ser muy importantes a la hora de poner en marcha procesos de calidad, y sobre todo para proteger al interventor. Sobre el Euskaltegi estamos de acuerdo con lo dicho. Nosotros vimos bien esas dos facturas, pero no podemos admitir esa justificación, es decir, como se pueden financiar 9 menús con el dinero público en la Sidrería Petritegi. Nuestro objetivo era rechazar esa factura. Sobre la propuesta realizada por el Alcalde no tenemos ninguna objeción en hacerlo de esa forma, pero hacemos una dura crítica a la gestión del Euskaltegi. No han hecho una buena gestión. Ni a nivel personal, ni a nivel de hacienda.

Ondoren, Alkatearen proposamena bozkatu da, hots puntua gai-zerrendatik ateratzea.

A continuación se procede a votar la propuesta de la Alcaldía, consistente en retirar el punto del orden del día.

Sopelako EHBildu udal talde politikoko Unai Del Burgo, Guruzne Carrasson, Ander Moreno, Aitziber Onaindia, Mikel Tapia eta Arantza Bilbao jaun/andreok, eta Elkarrekin Sopela-Podemos udal talde politikoko Patricia Alfonso eta Eder García jaun/andreok ere abstenitu dira.

Con la abstención de D. Unai Del Burgo, Dª Guruzne Carrasson, D. Ander Moreno, Dª Aitziber Onaindia, D. Mikel Tapia y Dª Arantza Bilbao del grupo político municipal Sopelako EHBildu y de Dª Patricia Alfonso y de D. Eder García, del grupo político municipal Elkarrekin Sopela-Podemos.

<u>Osoko Bilkurak, gehiengoz, erabaki du</u>: Gai hau baztertzea.

<u>El Pleno, por mayoría, acuerda</u>: Retirar el punto.

**4.- LEHENAGOKO BETEBEHARRAK AITORTZEA. GRUPO ACHA. 152/2019 ESP.:-** Segidan Alkate jaunak hartu du hitza eta hau adierazi du: Hauek dira Sopelbus enpresari dagozkion fakturak, apiril eta maiatzekoak zehazki. Orain, 2018ko martxotik kontratu gabe dago, baina zerbitzua ematen jarraitzen da. Gobernu-talde honen konpromisoa, klausulen Pleguan parte hartu duten sail guztiak ados daudela, urrian klausulen beste plegu bat izatea da.

**4.- RECONOCIMIENTO DE OBLIGACIONES DE FACTURAS. GRUPO ACHA. EXP. 152/2019:-** A continuación toma la palabra el Sr. Alcalde indicando: Estas son facturas correspondientes a Sopelbus, en concreto las de los meses de Abril y Mayo. Ahora mismo está sin contrato desde Marzo de 2018 pero el servicio se sigue dando. El compromiso de este equipo de gobierno y de acuerdo con todos los departamentos implicados en el Pliego de cláusulas, es el de tener el nuevo Pliego de cláusulas en el mes de Octubre.

Ondoren Eder Garcia jaunak hartu du hitza, Sopelako Elkarrekin Sopela-Podemos udal talde politikokoak, hau esanez: Argi dago Sopelbus-en arazoari irtenbidea eman behar zaiola. Jakin nahiko genuke zergatik geratu zen hutsik 2018. urteko lizitazioa. Aintzatespen hori, aurretik aurrekonturik onartuta ez egoteagatik ematen

Acto seguido toma la palabra D. Eder García, del grupo político municipal Elkarrekin Sopela-Podemos para señalar: Es evidente que hay que dar una solución al problema del Sopelbus. Nos gustaría conocer las razones por las que quedó desierta la licitación en el año 2018. Este reconocimiento se da por no haber presupuesto

da, baina egongo balitz ere, helburua da Sopelbus zerbitzu errealista lizitatzea eta zerbitzua sopeloztarrek behar duten kalitatearekin betetzea, betiere langileen eskubideak betez, eta ez une honetan BeOne-k kudeatutako Kiroldegian gertatzen ari den moduan. Arlo ekonomikoan eta zerbitzuaren eskaintzan irtenbide integral eta errealista bat ez badugu proposatzen, gerta daiteke lizitazioa berriro hutsik geratzea eta zerbitzua nahikoa ez izaten jarraitzea.

previo aprobado, pero aunque lo hubiera, el objetivo es licitar un servicio de Sopelbus realista y que cumpla el servicio con calidad que los sopeloztarras necesitan y velando porque los derechos de los trabajadores y trabajadoras se cumplan, y no como se está dando en estos momentos en el Polideportivo gestionado por BeOne. Si no planteamos una solución integral y realista en lo económico y oferta de servicio, podemos encontrarnos con que la licitación quede nuevamente desierta y que el servicio siga siendo insuficiente.

Ondoren Unai del Burgo jaunak hartu du hitza, Sopelako EHBildu udal talde politikokoak, hau esanez: Faktura horiek ez dira behar bezala izapidetu, eta hain zuzen zerbitzua oraindik ez delako lizitatu da. Turismoko Informazio Batzordean esan zen Pleguak eta lizitazioa hemendik gutxira egingo zirela. Batzorde horretan ere esan zen komenigarria izango litzatekeela aztertzea zerbitzu hori neguan ere eman zitekeen. Gure ustez, zerbitzu hori ezin daiteke bakarrik ebaluatu irizpide ekonomikoen arabera. Badakigu zerbitzua defizitarioa dela, baina bere helburua ez da ekonomikoa, soziala baizik. Zerbitzu honen helburua da zerbitzu publikoa eskaintzea, kalitatezkoa, eta zerbitzu publiko kolektiboa sustatzea. Guretzat oso garrantzitsua da zerbitzu hori urte osoan mantentzea, eta are gehiago, Batzordean Urdulizerako zerbitzua udan handitzea proposatu dugu, EHBildu Sopela taldeak Urdulizen proposatu duen moduan. Horrez gain, interesgarria da zerbitzua Sopelmar-eraino eramatea aztertzea, eta batik bat oso garrantzitsua da Ikastolan zerbitzua mantentzea. Gure ustez, zerbitzu hori sustatu behar da, informazio eta komunikazio kanpainen bidez, erabiltzaileek benetan ezagut dezaten. Halaber, garraio publiko hori bultzatu behar dugu.

Acto seguido toma la palabra D. Unai Del Burgo, del grupo político municipal Sopelako EHBildu para señalar: Estas facturas se han tramitado de forma irregular y es porque el servicio aún no se ha licitado. En la Comisión Informativa de Turismo se dijo que los Pliegos y la licitación se realizarían próximamente. En dicha Comisión también se dijo que sería conveniente analizar si ese servicio podría darse también en invierno. Opinamos que este servicio no se puede evaluar únicamente por criterios económicos. Sabemos que el servicio es deficitario pero su finalidad no es económica, sino social. La finalidad de este servicio es ofertar un servicio público, de calidad y potenciar el servicio público colectivo. Para nosotros es muy importante mantener este servicio durante todo el año, y es más, también hemos propuesto en Comisión ampliar el servicio a Urduliz, en verano, tal y como ha propuesto EHBildu Sopela en Urduliz. También es interesante analizar el llevar el servicio a Sopelmar y sobre todo, muy importante, mantener el servicio en la Ikastola. Creemos que hay que potenciar este servicio mediante campañas informativas, de comunicación etc, para que los usuarios realmente lo conozcan y, a su vez, impulsar este transporte público.

Geroago, Naiara Ibarzabal andreak hartu du hitza, Eusko Abertzaileak-Nacionalistas Vascos udal taldekoak, hau esanez: Zerbitzua ekonomikoki bakarrik ez baloratzearekin guztiz ados nago. Izan ere, ez genuke erabilgarri izango Sopelbus. Kontsulta egin diogu Lehiaren Euskal Agintaritzari, Udalak Ikastolarako ibilbidean parte har lezakeen galdetuz. Ezin bazen, neguko Sopelbus-en beste aukera batzuk bilatuko genituzkeela esan nuen, baina ez defizitarioa delako, baizik eta ez delako erabiltzen. Erantzuna gaur heldu zaigu, eta egin dezakegula berrets dezaket. Ez dago inolako bateraezintasunik. Urdulizko Udalarekin harremanetan jarri gara, Obra eta Zerbitzuen

Posteriormente toma la palabra Dª Naiara Ibarzabal, del grupo político municipal Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos para señalar: En cuanto a que el servicio no hay que valorarlo únicamente económicamente, estoy totalmente de acuerdo. De hecho, no dispondríamos de Sopelbus. Se ha hecho una consulta a la Autoridad Vasca de la Competencia preguntando si el Ayuntamiento podría actuar en el recorrido a la Ikastola. Comenté también que en caso de no ser posible, buscaríamos alternativas al Sopelbus de invierno, pero no por ser deficitario, sino porque no se utiliza. La respuesta ha llegado hoy y os puedo confirmar que lo podemos hacer. No hay ninguna

Saileko Jose Ignacio jaunarekin zehazki, bilera bat egiteko. Hala eta guztiz ere, Kontratazio Sailarekin hitz egin nuen eta zerbitzu bat beste udalerri batera eramatea ez dela hain erraza esan didate. Horrez gain, datorren urrirako ateratzea nahi badugu, gai hau beranduagorako eraman beharko dugu, ezinezkoa delako. Gaia etenda egoteko beste arrazoietako bat azterlan ekonomikoa zen, lizitazio guztietarako falta dena orain. Aurreko legealdian, plegu teknikoa alderdi guztien artean egin zen, eta aldaketa bat egin zen tasen gaian. Badirudi dagoeneko ez dela tasa bat, eta plegua zonaka antolatzen badugu, Ikastolan ere arituz, prezio publiko bati buruz hitz egiten egongo ginateke. Hori da aldatu beharko genukeen zatia, baina gainontzekoan, gure asmoa da urrirako lizitatuta egotea.

incompatibilidad. Nos hemos puesto en contacto con el Ayuntamiento de Urduliz, en concreto con D. José Ignacio del Departamento de Obras y Servicios para hacer una reunión. De todas formas, hablé con el Departamento de Contratación y me han comentado que no es tan sencillo elevar un servicio a otro Municipio. Decir también que si queremos que salga para el próximo mes de octubre, ese tema tendrá que ir para más tarde porque es imposible. Otro de los temas por el que se tenía parado el asunto era el Estudio Económico que hace falta ahora para todas las licitaciones. En la legislatura anterior, el Pliego técnico se elaboró entre todos los partidos y se hizo una modificación en el tema de las tasas. Parece que ya no es una tasa y si zonificamos el Pliego actuando también en la Ikastola, estaríamos hablando de un precio público. Esa es la parte que tendríamos que modificar pero por lo demás, nuestra idea es que para Octubre esté licitado.

10/2003 Foru Arauak, Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontuari buruzkoak, 40. Eta 41.2. artikuluetan xedatutakoarekin bat, betebeharra onartu aurretik gastua baimentzea ez dago.

De conformidad a los artículos 40 y 41.2 de la Norma Foral 10/2003, Presupuestaria del Territorio Histórico de Bizkaia, y ante la carencia de autorización del gasto previa al reconocimiento de la obligación.

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren proposamena ikusirik.

Vista la propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda y Especial de Cuentas.

Sopelako EHBildu udal talde politikoko Unai Del Burgo, Guruzne Carrasson, Ander Moreno, Aitziber Onaindia, Mikel Tapia eta Arantza Bilbao jaun/andreok, eta Elkarrekin Sopela-Podemos udal talde politikoko Patricia Alfonso eta Eder García jaun/andreok ere abstenitu dira.

Con la abstención de D. Unai Del Burgo, Dª Guruzne Carrasson, D. Ander Moreno, Dª Aitziber Onaindia, D. Mikel Tapia y Dª Arantza Bilbao del grupo político municipal Sopelako EHBildu y de Dª Patricia Alfonso y de D. Eder García, del grupo político municipal Elkarrekin Sopela-Podemos.

Osoko Bilkurak, gehiengoz hurrengoa erabaki du: Hurrengo betebeharrak onartzea.

El Pleno, por mayoría, acuerda: Reconocer las siguientes obligaciones:

| Partida | Proveedor/Hornitzaile | Concepto/Kontzeptua | Importe/Kopurua |
|---|---|---|---|
| 05 4411 22708 | ACHA TOURS S.L. | Sopelbus abril / Apirileko Sopelbus garraioa | 8.863,36€ |
| 05 4411 22708 | ACHA TOURS S.L. | Sopelbus mayo / Maiatzako Sopelbus garraioa | 8.863,36€ |
| | | **TOTAL/GUZTIRA** | **17.726,72€** |

**5.- LEHENAGOKO BETEBEHARRAK AITORTZEA. ALAIKI. 152/2019 ESP.:-** Ondoren, Mª Angeles Ibarra andreak hartu du hitza, Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos udal talde politikokoak, gaia azaltzeko.

**5.- RECONOCIMIENTO DE OBLIGACIONES DE FACTURAS. ALAIKI. EXP. 152/2019:-** A continuación, toma la palabra Dª Mª Angeles Ibarra, del grupo político municipal Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos para

explicar el tema.

10/2003 Foru Arauak, Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontuari buruzkoak, 40 eta 41.2. artikuluetan xedatutakoarekin bat, betebeharra onartu aurretik gastua baimentzea ez dago.

De conformidad a los artículos 40 y 41.2 de la Norma Foral 10/2003, Presupuestaria del Territorio Histórico de Bizkaia, y ante la carencia de autorización del gasto previa al reconocimiento de la obligación.

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren proposamena ikusirik.

Vista la propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda y Especial de Cuentas.

Sopelako EHBildu udal talde politikoko Unai Del Burgo, Guruzne Carrasson, Ander Moreno, Aitziber Onaindia, Mikel Tapia eta Arantza Bilbao jaun/andreok, eta Elkarrekin Sopela-Podemos udal talde politikoko Patricia Alfonso eta Eder García jaun/andreok ere abstenitu dira.

Con la abstención de D. Unai Del Burgo, Dª Guruzne Carrasson, D. Ander Moreno, Dª Aitziber Onaindia, D. Mikel Tapia y Dª Arantza Bilbao del grupo político municipal Sopelako EHBildu y de Dª Patricia Alfonso y de D. Eder García, del grupo político municipal Elkarrekin Sopela-Podemos.

Osoko Bilkurak, gehiengoz, hurrengoa erabaki du: Hurrengo betebeharrak onartzea.

El Pleno, por mayoría, acuerda: Reconocer las siguientes obligaciones:

| Partida | Proveedor/Hornitzaile | Concepto/Kontzeptua | Importe/Kopurua |
|---|---|---|---|
| 02 330 22707 | ALAIKI Zerbitzu Gizakulturalak S.L. | Ludoteka y gazteleku de mayo / maiatzako ludoteka eta gazteleku zerbitzua | 7.090,80€ |
| 02 330 22707 | ALAIKI Zerbitzu Gizakulturalak S.L. | Ludoteka y gazteleku de junio / ekaineko ludoteka eta gazteleku zerbitzua | 7.335,41€ |
| | | **TOTAL/GUZTIRA** | **14.426,21€** |

**6.- LEHENAGOKO BETEBEHARRAK AITORTZEA. NAGUSIEN ETXEA. 152/2019 ESP.:-** Ondoren, Mª Angeles Ibarra andreak hartu du hitza, Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos udal talde politikokoak, gaia azaltzeko.

**6.- RECONOCIMIENTO DE OBLIGACIONES DE FACTURAS. HOGAR DEL JUBILADO. EXP. 152/2019:-** A continuación, toma la palabra Dª Mª Angeles Ibarra, del grupo político municipal Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos para explicar el tema.

Segidan Maria Teresa Fernandez andreak hartu du hitza, Sopelako Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldekoak, eta hau esan du: Gizarte Ekintzako Batzordean azaldu nuen kontu-hartzailearen txostenaren arabera, zerbitzu hau segidan egiten dela, beraz, ezin da kontratatu kontratuen Lege berriaren arabera. Lizitatu behar da, beste kontratazio-espediente batekin, eta horretan gaude.

Después toma la palabra Dª Mª Teresa Fernández, del grupo político municipal Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak para indicar: Comenté en la Comisión de Acción Social que según informe de la Interventora este servicio es de tracto sucesivo, por lo que no se puede contratar en base a la nueva Ley de contratos. Hay que licitarlo, como un expediente de contratación más y decir que estamos en ello.

10/2003 Foru Arauak, Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontuari buruzkoak, 40 eta 41.2. artikuluetan xedatutakoarekin bat, betebeharra onartu aurretik gastua baimentzea ez dago.

De conformidad a los artículos 40 y 41.2 de la Norma Foral 10/2003, Presupuestaria del Territorio Histórico de Bizkaia, y ante la carencia de autorización del gasto previa al reconocimiento de la obligación.

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren proposamena ikusirik.

Vista la propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda y Especial de Cuentas.

Sopelako EHBildu udal talde politikoko Unai Del Burgo, Guruzne Carrasson, Ander Moreno, Aitziber Onaindia, Mikel Tapia eta Arantza Bilbao jaun/andreok, eta Elkarrekin Sopela-Podemos udal talde politikoko Patricia Alfonso eta Eder García jaun/andreok ere abstenitu dira.

Con la abstención de D. Unai Del Burgo, Dª Guruzne Carrasson, D. Ander Moreno, Dª Aitziber Onaindia, D. Mikel Tapia y Dª Arantza Bilbao del grupo político municipal Sopelako EHBildu y de Dª Patricia Alfonso y de D. Eder García, del grupo político municipal Elkarrekin Sopela-Podemos.

Osoko Bilkurak, gehiengoz, hurrengoa erabaki du: Hurrengo betebeharrak onartzea

El Pleno, por mayoría, acuerda: Reconocer las siguientes obligaciones:

| Partida | Proveedor/Hornitzaile | Concepto/Kontzeptua | Importe/Kopurua |
|---|---|---|---|
| 03 337 22717 | ARIANA CABALLERO PASCUAL. | Servicio de peluquería del hogar del jubilado / Nagusien etxeko ile apaindegiko zerbitzua | 447,26€ |
| 03 337 22737 | KEPA JOSEBA GALARDI ALDAMA | Servicio de podología del hogar del jubilado / Nagusien etxeko podologi zerbitzua | 516,80€ |
| | | **TOTAL/GUZTIRA** | **964,06€** |

**7.- LEHENAGOKO BETEBEHARRAK AITORTZEA. OBRA ETA ZERBITZUAK. 152/2019 ESP.:-** Ondoren, Mª Angeles Ibarra andreak hartu du hitza, Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos udal talde politikokoak, gaia azaltzeko.

**7.- RECONOCIMIENTO DE OBLIGACIONES DE FACTURAS. OBRAS Y SERVICIOS. EXP. 152/2019:-** A continuación, toma la palabra Dª Mª Angeles Ibarra, del grupo político municipal Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos para explicar el tema.

10/2003 Foru Arauak, Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontuari buruzkoak, 40. eta 41.2. artikuluetan xedatutakoarekin bat, betebeharra onartu aurretik gastua baimentzea ez dago.

De conformidad a los artículos 40 y 41.2 de la Norma Foral 10/2003, Presupuestaria del Territorio Histórico de Bizkaia, y ante la carencia de autorización del gasto previa al reconocimiento de la obligación.

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren proposamena ikusirik.

Vista la propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda y Especial de Cuentas.

Sopelako EHBildu udal talde politikoko Unai Del Burgo, Guruzne Carrasson, Ander Moreno, Aitziber Onaindia, Mikel Tapia eta Arantza Bilbao jaun/andreok, eta Elkarrekin Sopela-Podemos udal talde politikoko Patricia Alfonso eta Eder García jaun/andreok ere abstenitu dira.

Con la abstención de D. Unai Del Burgo, Dª Guruzne Carrasson, D. Ander Moreno, Dª Aitziber Onaindia, D. Mikel Tapia y Dª Arantza Bilbao del grupo político municipal Sopelako EHBildu y de Dª Patricia Alfonso y de D. Eder García, del grupo político municipal Elkarrekin Sopela-Podemos.

Osoko Bilkurak, gehiengoz, hurrengoa erabaki du: Hurrengo betebeharrak onartzea

El Pleno, por mayoría, acuerda: Reconocer las siguientes obligaciones:

| Partida | Proveedor/Hornitzaile | Concepto/Kontzeptua | Importe/Kopurua |
|---|---|---|---|

| | | | |
|---|---|---|---|
| 05 132 22104 | IRUNBAT S.L. | Gasolina policía municipal / Udaltzaingoaren gasolina | 1.181,31€ |
| 07 1533 22104 | IRUNBAT S.L. | Gasolina de obras / Obretako gasolina | 1.494,87€ |
| 07 160 21100 | LIMPIEZAS VALVERDE, S.L. | Limpieza de arquetas y tuberías de aguas pluviales / Euriko uren Kutxatila, eta tutuen garbiketa | 5.309,48€ |
| 07 171 21400 | LAPPSET ESPAÑA VR SL | Haur- jolasen ekaineko mantenua | 592,90€ |
| | | **TOTAL/GUZTIRA** | **8.578,56€** |

**8.- LEHENAGOKO BETEBEHARRAK AITORTZEA. INFORMATIKA. 152/2019 ESP.:-** Ondoren, Mª Angeles Ibarra andreak hartu du hitza, Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos udal talde politikokoak, gaia azaltzeko.

Naiara Ibarzabal andreak hartu du hitza, Eusko Abertzaileak-Nacionalistas Vascos udal taldekoak, hau esanez: Joan den ostiralean zenbait enpresarekin eta Informatika teknikariarekin egon ginen, zer zerbitzu eman litezkeen, zein ez eta abar jakiten lagun zezaten. Espero dugu plegu teknikoa iraileko Informazio Batzorderako prest egotea. Orain arte egon den mantentzeaz gain, edukia ere sartu nahi ditugu. Weba elikatu nahi dugu, baina berria egiten den heinean. Egin behar dena da gaur egun dagoen webaren edukia eguneratzea. Pleguak egiteko Informatika teknikariarekin ere izan gara, eta badirudi renting-a aukeratuko dela, baina oraindik ez dakigu. Irailerako espero dugu puntu horiek aurreratuta izatea.

10/2003 Foru Arauak, Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontuari buruzkoak, 40. eta 41.2. artikuluetan xedatutakoarekin bat, betebeharra onartu aurretik gastua baimentzea ez dago.

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren proposamena ikusirik.

Sopelako EHBildu udal talde politikoko Unai Del Burgo, Guruzne Carrasson, Ander Moreno, Aitziber Onaindia, Mikel Tapia eta Arantza Bilbao jaun/andreok, eta Elkarrekin Sopela-Podemos udal talde politikoko Patricia Alfonso eta Eder García jaun/andreok ere abstenitu dira.

**8.- RECONOCIMIENTO DE OBLIGACIONES DE FACTURAS. INFORMÁTICA. EXP. 152/2019:-** A continuación, toma la palabra Dª Mª Angeles Ibarra, del grupo político municipal Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos para explicar el tema.

Toma la palabra Dª Naiara Ibarzabal, del grupo político municipal Eusko Abertzaleak-Nacionalistas Vascos para indicar: El viernes pasado estuvimos con diferentes empresas y con el Técnico de Informática para que nos ayudasen a conocer qué servicios se podrían prestar, cuáles no, etc. Esperamos que el Pliego Técnico esté preparado para la Comisión Informativa de Septiembre. A parte del mantenimiento que ha habido hasta ahora, queremos incluir también la introducción de contenidos. Queremos alimentar la web aunque de forma paralela se vaya haciendo la nueva. Lo que requiere la web existente es actualizar su contenido. Hemos estado también con el Técnico de Informatica para elaborar los Pliegos y parece que todo se decante por el renting pero aún se desconoce. Para septiembre esperamos tener avanzados esos puntos.

De conformidad a los artículos 40 y 41.2 de la Norma Foral 10/2003, Presupuestaria del Territorio Histórico de Bizkaia, y ante la carencia de autorización del gasto previa al reconocimiento de la obligación.

Vista la propuesta de la Comisión Informativa de Hacienda y Especial de Cuentas.

Con la abstención de D. Unai Del Burgo, Dª Guruzne Carrasson, D. Ander Moreno, Dª Aitziber Onaindia, D. Mikel Tapia y Dª Arantza Bilbao del grupo político municipal Sopelako EHBildu y de Dª Patricia Alfonso y de D. Eder García, del grupo político municipal Elkarrekin Sopela-Podemos.

Osoko Bilkurak, gehiengoz, hurrengoa erabaki du: Hurrengo betebeharrak onartzea

El Pleno, por mayoría, acuerda: Reconocer las siguientes obligaciones:

| Partida | Proveedor/Hornitzaile | Concepto/Kontzeptua | Importe/Kopurua |
|---|---|---|---|
| 10 929 20500 | RIOZURI | Alquiler y copias impresoras mayo y junio /Maiatza eta ekaineko inpresoren alokairua eta kopiak | 4.538,90€ |
| 10 929 20500 | RICOH ESPAÑA S.L.U. | Alquiler y copias impresoras mayo y junio /Maiatza eta ekaineko inpresoren alokairua eta kopiak | 1.400,78€ |
| 10 929 22700 | SARENET S.A. | Buzón electrónico de junio / Ekaineko postontzi elektronikoa | 1.460,89€ |
| 10 929 22717 | SOULBILBAO | Mantenimiento de las webs y webcam febrero, marzo y abril /Otsaila, martxoa eta apirileko web eta webcamen mantenua | 4.051,08€ |
| | | **TOTAL/GUZTIRA** | **11.451,65€** |

## ARGIBIDE, SUSTAPEN ETA KONTROL ATALA

## PARTE DE INFORMACIÓN, IMPULSO Y CONTROL

**9.- PRESAZKO MOZIOAK, HALAKORIK BADA**.:- Une honetantxe, alkate jaunak galdetu du ea talde politikoren batek deialdiarekin batera doan gai-zerrendan ez dagoen eta galde-erreguen txandan sartu ezin den gairen bat aztertu nahi duen, premiazkoa delako. Horri erantzunez, EZETZ adierazi dute Zinegotziek.

**9.- MOCIONES DE URGENCIA, SI LAS HUBIERA**. En este momento, se pregunta por el Sr. Alcalde si algún grupo político desea someter a la consideración del Pleno por razones de urgencia, algún asunto no comprendido en el Orden del Día que acompañaba a la Convocatoria y que no tenga cabida en el punto de Ruegos y Preguntas, a lo que se responde por parte los concejales, que NO

**10.- ALKATETZA-DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA**: Hauen berri emanda:

**10.- DACIONES DE CUENTA DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA SIGUIENTES:** Dada cuenta de los siguientes:

*(A)- MAIATZAREN 24KO 1064/2019 ALKATETZA-DEKRETUA, KREDITU GEHIGARRIAREN BIDEZ UDAL AURREKONTUAK ALDATZEKO 12 ZBK. ESPEDIENTEARI DAGOKIONA.*

*(A).- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO DE ALCALDÍA NÚMERO 1064-2019, DE 24 DE MAYO, RELATIVO A EXPEDIENTE Nº 12 DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE CRÉDITO ADICIONAL.*

*(B)- EKAINAREN 18KO 1194/2019 ALKATETZA-DEKRETUA, EZKONTZA ZIBILA EGITEKO ALKATETZA-AHALMENAREN GAINEKOA. (2208/2019 esp.)*

*(B) DACION CUENTA DEL DECRETO DE ALCALDIA NUMERO 1194/2019, DE 18 DE JUNIO, RELATIVO A DELEGACIÓN DE CELEBRACIÓN DE MATRIMONIO CIVIL. (Exp. 2208/2019)*

*(C)- EKAINAREN 19KO 1203/2019 ALKATETZA-DEKRETUA, EZKONTZA ZIBILA EGITEKO ALKATETZA-AHALMENAREN GAINEKOA. (2231*

*(C).- DACION CUENTA DEL DECRETO DE ALCALDIA NUMERO 1203/2019, DE 19 DE JUNIO, RELATIVO A DELEGACIÓN DE*

*esp.)*

*CELEBRACIÓN DE MATRIMONIO CIVIL.(Exp. 2231)*

*(D)- EKAINAREN 27KO 1280/2019 ALKATETZA-DEKRETUA: TOKIKO GOBERNU BATZARREKO KIDEAK IZENDATZEA. (2311/2019 esp.)*

*(D).- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO DE ALCALDÍA NUMERO 1280/2019, DE 27 DE JUNIO, RELATIVO A NOMBRAMIENTO MIEMBROS DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL. (Exp. 2311/2019)*

*(E)- EKAINAREN 27KO 1281/2019 ALKATETZA-DEKRETUA: ALKATEORDEAK IZENDATZEA. (2317/2019 esp.)*

*(E).- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO DE ALCALDÍA NÚMERO 1281/2019, DE 27 DE JUNIO, RELATIVO A NOMBRAMIENTO DE TENIENTES DE ALCALDE.(Exp. 2317/2019)*

*(F)- UZTAILAREN 1EKO 1298/2019 ALKATETZA-DEKRETUA: BATZORDE INFORMATZAILE IRAUNKORRAK EGITEKO EGUNAK ETA ORDUAK EZARTZEA. (2373/2019)*

*(F).- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO DE ALCALDÍA NUMERO 1298/2019, DE 1 DE JULIO, RELATIVO A FIJACION DE FECHAS Y HORAS DE CELEBRACIÓN DE LAS COMISIONES INFORMATIVAS PERMANENTES.(Exp. 2373/2019)*

*(G)- UZTAILAREN 2KO 1307/2019 ALKATETZA-DEKRETUA: UDALAK DITUEN ARLOAK KUDEATZEKO ETA ZUZENTZEKO ESKUMENAK EMATEA. (2393/2019)*

*(G).- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO DE ALCALDÍA NÚMERO 1307/2019, DE 2 DE JULIO, RELATIVO A LA DELEGACIÓN DE LAS FACULTADES DE LA DIRECCIÓN Y GESTIÓN DE LAS DIVERSAS ÁREAS DEL AYUNTAMIENTO. (Exp. 2393/2019)*

*(H)- UZTAILAREN 2KO 1308/2019 ALKATETZA-DEKRETUA: BATZORDE INFORMATZAILE IRAUNKORRETAN LEHENDAKARIAK IZATEKO ESKUMENAK EMATEA. (2374/2019 esp.)*

*(H).- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO DE ALCALDÍA NÚMERO 1308/2019, DE 2 DE JULIO, RELATIVO A DELEGACIÓN DE LAS PRESIDENCIAS EFECTIVAS DE LAS DIVERSAS COMISIONES INFORMATIVAS PERMANENTES. (Exp. 2374/2019)*

*(I)- UZTAILAREN 3KO 1317/2019 ALKATETZA-DEKRETUA: TOKIKO GOBERNU BATZARREKO ESKUMENAK EMATEA (2209/2019 esp.).*

*(I).- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO DE ALCALDÍA NUMERO 1317/2019, DE 3 DE JULIO, RELATIVO A DELEGACIÓN DE ATRIBUCIONES EN LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL. (Exp. 2209/2019)*

*(J)- UZTAILAREN 4KO 1329/2019 ALKATETZA-DEKRETUA: 1317/2019 ALKATETZA-DEKRETUAREN BIDEZ EGINDAKO ESKUORDETZEAN BI ATAL BALIOGABETZEA. (2209/2019 esp.)*

*(J).- DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO DE ALCALDÍA NUMERO 1329/2019, DE 4 DE JULIO, RELATIVO A REVOCACIÓN DE DOS PUNTOS DE LA DELEGACIÓN EFECTUADA MEDIANTE DECRETO DE ALCALDÍA 1317/2019. (Exp. 2209/2019).*

*(K)- BERRI EMATEA: 2019KO 2. HIRUHILEKOARI DAGOKION FINANTZA IRAUNKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENA, GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINTZAKO GERAKINAK ERABILTZEAREN GAINEKOA. (1362/2019 esp.)*

*(K) DAR CUENTA DEL INFORME DE SOSTENIBILIDAD FINANCIERA DEL 2º TRIMESTRE DEL 2019 EN RELACIÓN CON LA UTILIZACIÓN DEL REMANENTE DE TESORERÍA PARA GASTOS GENERALES. EXP. 1362/2019.*

*(L)- BERRI EMATEA: 2019KO 2. HIRUHILEKOARI DAGOKION AURREKONTUAREN GAUZATZE-EGOERA.*

*(L) DAR CUENTA DEL ESTADO DE EJECUCIÓN DEL 2º TRIMESTRE 2019. EXPTE 1360/2019.*

*(M)- BERRI EMATEA: KONTU-HARTZAILETZAREN ERAGOZPENAK. (2524/2019 esp.)*

Sopelako EHBildu Udal Talde Politikokoa den Unai Del Burgok, zera adierazten du: Gure iritsia eman nahiko genuke Osoko Bilkura honetan jasota gera dadin. Aldez aurretik gure iritzia utzi genuen Langileriako Komisioan. Batez ere 2 puntutan. Tokiko Gobernu Batzordearen kideen inguruan eta Alkate-ordeak izendatzearen dekretuan. Arritu egin nituen funtzionamendu plenoan honen inguruan informaziorik ez ematea. Suposatzen dugu oraingo gobernu batzordea osatzen duten alderdien arteko negoziazioak izango dirala horren arrazoia. Faltan bota genuenh, komisioen aurretik ez jasotzea horren inguruko informazioa. Nortzuk izango diran gobernu talde berria osatzen dutenak, bere funtzioak eta antolaketa. Joan den legegiltzalditik hona asko aldatu da egitura hori. Langileriako komisioan gure desadostasuna adierazi gendun. Bestetik, bozeramaile batzordean hau komentatu genuen: Orain beste funtzionamendu berri bat dago eta udal talde berrian, Junta horretan, erabakiak hartzen dira. Gure nahi da Junta horren espedienteak zuzenean ikustea edo sarbidea izatea espediente horiek ikusi ahal izateko.

Bestalde, joan den ekainaren 15eko eraketaren osoko bilkurari dagokionez, antolaketaren eta Gobernu Batzordean duen eragin politikoaren inguruko galdera egin nahi dugu. EAJ eta DB-TU alderdien arteko akordioan, Alkatetza lortzeko, bestelako puntuen artean, hauxe erabaki zen: DB-TUri lanpostu bat ematea, tokiko Gobernu Batzarretik independentea dena. Jakin nahi genuke non hautematen den independentzia hori Gobernu Batzordearen gaur egungo funtzionamenduan. Tratamendu desberdintasunik al dago Gobernu Batzordearen kide horren aldean? Zergatik da independentea, eta batzordeko gainerako kideak ez?

Ondoren Eder García jaunak hartu du hitza, Sopelako Elkarrekin Sopela-Podemos udal talde politikokoak, hau esanez: Bitxia da nola egun batzuetan Gobernu Batzordea aldatu egin zen. Ekainaren 25eko Dekretuan, DB-TU, logikoa denez, kanpoan zegoen, Alkate jaunaren inbestiduran agertu zuen jarrerarengatik. Itun bat egitea erabaki zuten, baina itun horren fiskalizazio

*(M) DACIÓN DE CUENTA DE REPAROS DE INTERVENCIÓN. EXP. 2524/2019*

